

KOMUNIKAZIOKO GRALen **BERRIA** SARIA: 2022/2023

1. Deialdia

BERRIA egunkariak UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearekin elkarlanean, Komunikazioko GRALen BERRIA Sariketan parte hartzeko deia egiten du.

2. Parte hartzeko baldintzak

1.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean Kazetaritzan nahiz Ikus-entzunezko Komunikazio graduetako ikaslea edo ikasle-ohia izatea.

2.- Gradu Amaierako Lana (GRAL) 2022 ikasturtean euskaraz egin eta defendatu izana (martxoan, ekainean edo irailean) , gutxienez 9 kalifikazioarekin.

3. Saria ebazteko prozedura

Epaimahai mistoa eratuko da, bost pertsonak osatua: batetik, BERRIAk izendatutako hiru profesional izango dira, eta, bestetik, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Kazetaritzako eta Ikus-entzunezko Komunikazioko graduetako irakasle bana.

Lanaren interesa baloratzeko, epaimahaiak honako aspektuak baloratuko ditu:

- **Komunitate zientifikoari eta gizarteari egindako ekarpena** (Eztabaida publikoa abiatzea, protagonisten duintasuna bermatzea, berdintasunaren eta kultur aniztasunaren alde egitea, bazterkeriarik eta bereizkeriarik gabeko tratamendua).
- **Euskarriari dagokion narratibaren kalitatea** (Estilo argia, zehatza, erakargarria izatea eta adierazpenerako erabiltzen den hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna).
- **Edukien alderdi formalen eta estetikoaren erabilera zuzena** (Informazioaren jatorriaren zehaztapena, iturrien nortasuna, dokumentazioa, ikuspegi kopurua, informazio elementu osagarrien erabilera: argazkiak, irudiak, infogramak, bideoak eta audio-fitxategiak, besteak beste).
- **Zorroztasun metodologikoa** (Testuak sortu eta egituratzeko eta batez ere ikerketa proiektuetan erabiltzen den metodologian oinarritua).

3.1. Nola aurkeztu

- GRALa idatzizkoa bada, pdf formatuan entregatu beharko du egileak; ikus-entzunezko pieza bat bada, .mp4 edo .mov euskarrian.
- Zehaztu honako datu hauek: izen-abizenak, telefonoa, posta elektronikoa, helbidea eta herria.

3.2. Nora bidali lanak

Helbide honetan jasoko dira lanak:

[BERRIA egunkaria](#)

[“KOMUNIKAZIOKO GRALen BERRIA SARIA”](#)

[Martin Ugalde Kultur parkea](#)

[Gudarien etorbidea z/g](#)

[20140 ANDOAIN.](#)

Posta elektronikoz: : idezkaritza@berria.eus helbidean.

3.3. Epeak

—GRALa bidaltzeko: 2023ko martxoaren 29ko 24:00 orduak

—Deialdiaren emaitza argitaratzeko data: 2023ko maiatzaren 31ko 00:00 orduak

—Saria ekitaldi publikoan entregatzeko data: Garaiz adieraziko da.

4. Saria

Honako hau izango da GRAL irabazlearen egileak jasoko duen saria:

- Ekitaldi publikoan emango zaion diploma.
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateak emandako 200 €-ko bonoa.
- GRALaren saridunarekin elkarrizketa eta lanaren hedapena BERRIaren euskarrietan.
- BERRIAlagun izatea urtebetez.